

DIRU-ITURRIA

Diru iturriak gure enpresaren iraunkortasunerako eta garapenerako funtsezkoa dira. Horretarako, gure enpresak hainbat produktu salduko ditu eta diru iturri bakarra edukiko du. Zehazki ondoren adieraziko dugu.



Lehenik eta behin, gure proiektua martxan jarrazteko eta hasierako inbertsioari aurre egin ahal izateko, kontuan egin ondoren ondorioztatu dugu gutxi gorabehera 23.989€ beharko ditugula. Hortaz, bi modutara lortuko dugu dirua: alde batetik, bakoitzak bere aurrezkietatik 5.000€ jarriko ditu beraz, denen artean 20.000€ jarriko ditugu. Beste aldetik, bankuari 50.000€ko mailegua eskatuko diogu. Ondorioz, 70.000€ izango ditugu eskuragarri gure proiektuari hasiera eman ahal izateko.

Gure diru iturri bakarra, gure salmentei esker lortutako dirua izango da. Hortaz, ahalik eta produktu gehien salduta, diru iturri gehiago izango dugu material berria erosi ahal izateko eta denboran zehar nobedade berriak ekartzen joan ahal izateko. Haatik, kontuan hartu beharra dago, salmenta kopuruak ez direla hilabetero berdinak izango, hau da, hilabetearen arabera aldatzen joango direla, beraz lortuko dugun dirua ere aldatzen joango da.

Hala ere, hilabetero derrigorrez 9.810,66€ gastatu beharko ditugu kostu finkoetan, eta diru hori batez ere salmentetatik aterako dugu, nahiz eta hasieran probablea denez salmenta gutxi izatea, eskatuko dugun maileguarengatik sobratutakoarekin lagunduko ginateke. Kostu aldakorretan berriz, 7690,50€ beharko ditugula aurreikusten dugu (ura, gasa eta argia kontuan hartu gabe), horiek ere salmentekin lortutako diruarekin eta maileguko zati batekin ordainduko genituzke.